

PROSENS enpresa berritzaileak Toribio Echevarria Saria jaso du

2008/12/17

Ikerkuntzatik sorturiko enpresa berritzaile honengan erori zen ideia eta enpresa proiektuen Sari Teknologikoa

PROSENS enpresa proiektuaren historia duela 4 urte hasi zen bere sustatzaile nagusia den Endika Gandarias-ek doktoradutza tesia Mondragon Unibertsitateko mikrofabrikazioaren esparruan hasi zuenean. Ideko-IK4 zentru teknologikoarekin eta Cardiffeko Unibertsitatearekin batera makina erraminten buruetan gertatzen den printzipio fisiko berri bat antzeman zen lehen aldiz. Honek fabrikazio prozesu anitzen doitasun eta produktibitatea nabarmenki areagotzea bermatzen du. Berrikuntza honek lehen produktu aurre-industrial baten sorrera suposatu zuen, MICROM deritzona, eta bere komertzializaziorako PROSENS enpresa sortuko da laister.

Endika Gandarias-en hitzetan, << MICROM, enpresa berri honen produktu nagusiak, erraminta edo buruaren eta piezaren arteko kontaktu unea antzematen du era zehatz, azkar eta ziurrean. Makina erraminten sektorean, aldi berean neurketa eta mekanizazio eragiketak burutzea eragin handia izando duela uste dugu >>.

XIX Toribio Echeverria Sarien ekitaldia pasadan abenduaren 15ean burutu zen Eibarreko Coliseo antzokian, pasadan abenduaren 3an burutu behar zen ekitaldia egun berean atzera bota ondoren Inaxio Uria enpresa gizonaren erahilketa dela medio. Orotara, 100.000 € baino gehiago banatu ziren berrikuntza eta garapen enpresariala sustatzeko. Ekitaldian parte hartu zuten anfitrioi lez Eibarreko alkateak, Miguel de los Toyos, eta Bic Berrilaneko zuzendariak, Marisa Arriola, eta baita Berrikuntza diputatuak, Jose Ramon Guridi, Teknologia kontseilari ordeak, Iñaki Telletxea, eta Adegiko presidentek, Eduardo Zubiaurre.

Saria jazo ondoren, PROSENSeko sustatzaileak aipatzen zuen lez << errekonozimendu hau bultzada garrantzitsu bat da guretzat, bai bide zuzenean lanean gabiltzala adierazten digulako eta baita bere bultzada ekonomikoagaitik>>.

Beste saritutakoen artean, aipatzekoa da martxan dabiltzan enpresa berrien atalean Farsens enpresari egokitu zitzaiola eta kategoria honetako sari teknologikoa Innoprot-eri. Ideia eta enpresa proiektuen saria Aureliari egokitu zitzaion eta Egamaster enpresak internazionalizazio saria jazo zuen.

<http://www.diariovasco.com/20081216/economia/premios-toribio-echevarria-convirtieron-20081216.html>



PROSENS enpresako partaideak (Patxi Aristimuño, Endika Gandarias eta Iñigo Bediaga) jasotako Sari Teknologikoa adierazten dute